



NEKANE AKARREGI

LEA-ARTIBAIRAKO PLAZA BARRIA. «Eskualde osoko taldeek izango dabe lekua hemen», dinoe Zenbat Garako Teo Etxaburu eta Ander Ibarlozak.

Ondarroak badauka Antzokia

GAUR ILUNTZEAN IZANGO DA INAUGURAZINOA. Lehenako 'Beheko Zinea' Ondarroako Kafe Antzokia bihurtu dau Zenbat Gara Alkartek. Apirilerako ekitaldi ugari antolatu ditue.

Nekane Akarregi |

I txaropena ez ei da galdu behar. Hau argi ikusi dabe behintzat Zenbat Garakoek Ondarroako Kafe Antzokia zabaltzeko orduan. 2000ko zementian beharrean hasi ziran lehenako *Beheko Zinean*, eta 2001eko udarako zabaltzeko asmoa baeuken be, zimentazio zereginek atzeratu egin eben hasierako gogoia. «Lehendik be bagenkian arren, orduntxe baieztatu genduan nondik etorren Ondarroaren izena. Hantxe egoan hondarra! Zulatu eta zulatu eta sekula amaitu be ez», dino Ander Ibarloza Kafe Antzokiko arduradunak.

2002ko aratusteetarako zabaltzeko berbea emon eben. «Baina amaierako beharrak betizaten ei dira amaiera bakoak... Horrezaz be konturatu gara».

Azkenean ba, heldu da egun handia. Gaur 20:00etan Ondarroako Kafe Antzokiko atea zabalduko dira, jai giroan. «Musikoak ez dira faltako, herrikoak zein kanpokoak; tartean, uste-bakoak...», dino Ibarlozak.

Indarrak batzeko gunea

Markuerkiaga senideek (zine aretoaren jabeak) Ondarroan Kafe Antzokia zabaltzeko proposamena egin eutsieen Zenbat Gara Alkartekoei. Bertako kide Teo Etxaburuk dinoanez, pozik hartu eben eskaintzea. «Bagenkian inbertsino ekonomiko gogorra egin beharko

genduala, baina holakoetan bihotzagaz jokutzen dogu gehienetan, Zenbat Gara Alkartearen helburuekin bat datorrelako. Euskerearen herriak holako guneak behar ditu, eta gure proiektuak euskal lurralde osorako balio dau. Ondarroak, gainera, herri bat eta bere berbetea osotasunean ezagutzeko aukerea emoten dau», argitu dau Etxaburuk.

Bide batez, Antzokia proiektu bateratzailea dala be badino, herriko gizarte taldeak, kulturak eta ludikoak batu eta sendotzeko gune aproposa. «Bizitzeko jarrera baikorrak behar ditugu: hartu-emonak hobetzeko, batzeko, alkarregaz dantzan aurrera egiteko... Talde bakotxak bere pentsakera eta nortasunetik herria osotzen joan behar dau, batuko gaituen bideak egi-

ten, euskal mundutik hasi eta mundu osora zabalik beti», esan dau.

Herritarrekin hartu-emonetan

Zenbat Garakoak Kafe Antzokiaren proiektua herritarrei azaltzen hasi ziran Gabon bueltan. «Herriko ikastetxe eta alkar gehienekin batzen hasi gitan: danei zuzenean eta banan-banan zelakoa izango zan jakin eragin nahi geuntsen. Komenigarria ikusi genduan hartu-emon hori eukitea. Ganera, jakin behar eben proposamen guztiei zabalik gagozala: edozein ikuskizunek dauka lekua hemen», esan dau Ander Ibarloza arduradunak.

Aurretik aretoa zinema izan arren, ez ei dabe pelikularik emongo, «baina bai, diaporamak, bideoak edo marathoiak».

Eskualde osoak dauka lekua eurenengan. «Eta Lea-Artibai dino-gunean Mutriku eta Deba be sartu egiten ditugu, Gipuzkoako herri bi honeek be geure ingurutzat hartzen ditugulako».

Ibarlozaren berbetan, bizitasuna eta parte-hartzeko bidea baino ez dabe ipini herrian. «Ondarrutarrek begi onez ikusi dabe Kafe Antzokia, eta baikortasun hori derrigorrezkoa dogu proiektua aurrera eroteko. Giro ona sortzea da helburua, hemen beharrean ibiliko gare-nok pozik sentitzea, eta gero herritarrek eta ingurukoak gustora egotea egiten dogunagaz».

Egitarauan adin guztiak hartu ditue kontuan. Holan, ekitaldi asko ei dagoz jenteak parte hartu beharrekoak: olgetan, dantza ganbarea, kantagintzea, jazbana, baltseoa... «Denporeak

INDARRAK BATU

«Talde bakotxak hartu-emonak sendotzen joan behar dau, eta Antzokia leku aproposa da horretarako», dinoe

HERRIAGAZ BAT

Gabonetan, banan-banan, herriko ikastetxe eta alkarrekin batu ziran, euren proiektua zelakoa izango zan azaltzeko

PENALTYKO MENUA

Aspaldi itxi eben Penalty jatetxea. Hango menu ederrak berreskuratzeko, bertako alabea izango dabe sukaldari

esango dau gustokoak diran edo ez. Jenteak ez badau parte hartzen egitarautik kendu egingo doguz». Musika taldeei jago-kenez, Euskal Herriko eta kanpoken arteko orekea zaintzen ahaleginduko dira.

Ekitaldi asko doan izan arren, beste batzuetan sarrerea ordaindu beharko da. «Honetxe dira aurretiazko salmenta tokiak: Lekeition, Ganbara; Markina-Xemeinen, Iruzubi taberna; Mutriku, Badi bodegoia; eta Ondarroan, Zurrumurru liburudendea eta Kafe Antzokia», azaldu dau.

Penalty jatetxeko menua

Alkarteko publizidade laguntzaileez ganera, 15 lagunek behargin taldea eukiko dau Kafe Antzokiak, beste batzuen artean, zerbitzari, argi-musika tekniko, disko jartzaile, bulegari eta koordinatzaileak. Sukaldari beharretarako Ondarroako Penalty jatetxeko alabea eukiko dabe. «Penalty ospe handiko jatetxea izan da urte askoan herritar zein kanpokoentzat. Urte batzuk badira jatetxea itxi ebena. Baina Pura Garcia-Salazar bertako alabearen platerakana-ko jakimina galtzea penagarria izango zanez, hona etortea proposatu geuntsan, eta baietz esan euskun», dino Ibarlozak. Holan, Penaltyko karteak eukiko dabe asteburuetan udabarri eta neguan. Udan egunero emongo dabe menu hori, eta baita plater bereziak be (entsaladak, kazularatxoak...). Enkarguz, koadrilentzako bazkari-afariak be prestatuko ditue.

Astean zehar 10:00etan zabalduko dabe, eta 23:00etan itxi. «Bariku-zapatuetan beranduago zarratuko dabe, eta eguaztentean, jai», gehitu dau Ibarlozak.

APIRILEKO EGITARUA

APIRILAK 12, BARIKUA

20:00: Zabaltze ekitaldia. Sarrerea, doan.

APIRILAK 13, ZAPATUA

22:00: Benito Lertxundi. Aurretik: 10 euro. Bertan: 12. Lagunak: 6 euro.

APIRILAK 14, DOMEKEA

12:30: Jazbana: Antsibiko Buameak. Txikiteko orduak alaitzeko, musika zuzenean. Sarrerea doan.

17:00: Olgetan, Umeentzako jaiak: Xirula Mirula eta Txan Magoa. Sarrerea: 5 euro.

APIRILAK 18, EGUNA

20:00: Baltseoa: Betiko dantzak egiteko

aukerea egongo da (tangoak, pasodobleak, balsak, boleroak...). Sarrerea, doan.

APIRILAK 19, BARIKUA

21:30: Etsaiak-en kontzertua. Aurretik: 4 euro. Bertan: 5 euro. Lagunak: 2,50 euro.

APIRILAK 20, ZAPATUA

22:00: Anje Duhalderen kantaldia. Aurretiaz: 6 euro. Bertan: 8 euro. Lagunak: 4 euro.

APIRILAK 21, DOMEKEA

12:30: Kantagintzea. Udal Musika Eskolako Kantu Ikastaroko kontzertua. Doan.

APIRILAK 24, EGUAZTENA

20:00: Urbeltzen Dantza Ganbara: Euskal dantzak egiteko aukerea. Sarrerea, doan.

APIRILAK 26, BARIKUA

22:00: Betagarriren kontzertua. Aurretiaz: 5 euro. Bertan: 6 euro. Lagunak: 3 euro.

APIRILAK 28, DOMEKEA

17:00: Olgetan, Umeentzako jaiak: Kiki, Koko, Moko eta Flax Pailazoak. Sarrerea: 5 euro.

APIRILAK 30, MARTITZENA

20:30: Antzerki emonaldia: *8 Olivetti Poetiko*, Bilboko Antzerkiola Imaginarioa taldearen eskutik. Sarrerea: 5 euro. Lagunak: 2,50euro.